



## **Mungiako Udalak abian jarri du Guraso Eskolaren zazpigarren edizioa**

- Ekimen honen helburua gurasoei beren hezkuntza-lanean laguntzea da
- Izen-ematea doakoa izango da, eta urriaren 2tik 31ra egin ahal izango da
- Hiru modulu eskainiko dira, seme-alaben adinaren arabera antolatuta: 3-6 urtekoak, 7-12 urtekoak eta 12-16 urtekoak

**Mungia, 2023ko irailaren 19a.** Gurasoei beren hezkuntza-lanean laguntzen jarraitzeko asmoz, Mungiako Udalak, Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitateko Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuaren laguntzarekin, Guraso Eskolaren zazpigarren edizioa jarriko du abian datorren azaroan. Izen-ematea doakoa izango da, eta urriaren 2tik 31ra bitartean egin ahal izango da, eta hiru modulu espezifiko egongo dira, seme-alaben adinaren arabera: 3 eta 6 urte bitartekoak, 7 eta 12 urte bitartekoak eta 12 eta 16 urte bitartekoak.

Bakarne Egia Mungiako Udaleko Gizarte Ekintza, Hezkuntza eta Berdintasun zinegotziak honako hau adierazi du: "programa honen bidez, gurasoei beren hezkuntza-lanean laguntzea bilatzen dugu, eta zeregin hori, zirrargarria izan arren, batzuetan erronka handia izan daiteke familia askorentzat. Horregatik, Eskola honen prestakuntza-eskaintza zabaltzen eta egokitzen joan gara; izan ere, ezagutzarako, elkartruckerako, ekarpenerako eta garapenerako espazio hau eskaintzen jarraitzeko beharra ikusi dugu, seme-alabak haztearekin lotutako zalantzak argitu eta kezkek partekatu ahal izateko".

Horrela, Gurasoen Eskolak azaroan irekiko ditu ateak berriro, eguneroko gaiak jorratuko dituzten saioekin, hau da, gurasoek egunero aurre egin behar dietenak, adimen emozionala bereziki azpimarratuz; saio horiek haurtzaroan eta nerabezaroan espezializatutako psikologo batek emango ditu. 2024ko maiatzean amaituko dira, eta udaletxeko beheko aldean dagoen erakusketa-aretoan egingo dira.

Ildo horretan, hiru modulu eskainiko dira, seme-alaben adinaren arabera antolatuta: lehena, 3-6 urteko seme-alabak dituzten familientzat; bigarrena, 7-12 urteko seme-alabak dituzten familientzat; eta hirugarrena, 12-16 urteko nerabeen familientzat. Modulu bakoitza lau gai-multzotan banatuko da, eta, beraz, ez da beharrezkoa modulu osoan izena ematea; aitzitik, blokeka inskriba daiteke, multzo bakoitzeko saioak osagarriak izango baitira.

Izen-ematea doakoa izango da eta urriaren 2tik 31ra bitartean egin ahal izango da aurrez aurre Mungiako Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoan, [gizartekintza@mungia.eus](mailto:gizartekintza@mungia.eus) e-postaren bidez edo 946558714 telefonoaren bidez. Plaza mugatuak egongo dira, lehentasuna Mungian eta Mungialde Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten gainerako udalerrietan (Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz eta Meñaka)

errolatutakoentzat. Plazak badaude, beste udalerrri batzuetako pertsonak eman ahal izango dute izena.

### **Guraso Eskola**

Programa hori 2017-2018 ikasturtean hasi zen, gurasoei hezkuntza-lanean laguntzeko. Abian jarri zenetik, programak zabalkuntzak izan ditu, prestakuntza-eskaintza honetara egokitzeko asmoz. Urte hauetan zehar, ezagutzarako, elkartrukerako, ekarpenerako eta garapenerako espazio hau eskaintzen jarraitzeko beharra ikusi da, zerbitzu profesional eta espezializatu baten bidez laguntza emateaz gain, zalantzak argitu eta kezkek partekatu ahal izateko. Ildo horretan, gurasoen eskolaren helburuak hauek dira:

- Jarraibide argiak ematea, erraz uler daitekeen hizkuntzan.
- Familien hezkuntza-lanean gidari eta orientazio izatea.
- Haurren hezkuntzan ohikoak diren zalantzak eta galderak argitzea.
- Profesional adituen ezagutzak behar dituen edonori hurbiltzea.